

2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

A eredua

(BIZKAIERA)

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Ariketa bi honeek egiteko **ordubete eta 40 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakoixaren hasieran datoian argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitex letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-motea: CLOZE-TESTA

Zelan egin:

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakotzak berba bat kendu dala adierazoten dau.
 - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markatu **erantzun-orrian**.
 - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deutsugu.
- Ariketa hau gainditzeko, gitxienez 30 egin behar dozuz ondo.

MAGIAREN ETA OHITUREN IRUDIAK

Sugearen zauriari aurre egiteko, gaixoaren aurrean bere izena esanaz, "libra daiala pasmo zikin eta materia zikinetik" errezitau eta 21 kredo errezau behar dira. Hauxe da, beste hainbat adibideren artean, *Euskal Herriko magia* izenburupean Euskadiko Filmategiak eskuratu dituan filmetan azaltzen dan sendatze-ohituretako bat. Aita Laburuk ehun filmetan jaso __1__ eta Loiolako Santutegiko artxiboan 1932. eta 1935. urteen artean batu ziran. Orain, filmotekearen __2__ ixtea erabagi dabe jesuitek.

Film horreetan, aerofagiak, zoldutako __3__, sabeleko minak, sugeen __4__, umeen buruko zahia, eta beste __5__ osasun-arazo osatzeko modua filmau eban Aita Laburuk, gaixotasun bakotxaren osabideari __6__ errituakaz batera. Horrezaz gainera, zeremonia horreek egiten zituen personak —danak be baserritarrak— identifikau zituan, eta, bere prestakuntzeari eta __7__ esker, erabilitako formulen azalpenak batu zituan filmazinoetan. Animaliei __8__ dokumentalek be __9__ berezia merezidu dabe: Aita Laburuk oilar-jokoak, hartzak, azeriak, txarriak eta beste hainbat animalia __10__ antropologikotik filmau zituan, irudien kalidadeari garrantzi handia __11__.

XX. mendera arte __12__ daben sinismen eta magiaren indarraren adibide __13__ dira orain ezagutu doguzan irudi eta testuak; euskal gizartean magiak eukan indarra argi dagoan __14__, irudi honeek sendotu __15__ dabe aurretik ezaguna zana. Honeexek dira, gainera, Euskal Herrian gai hori __16__ daben film bakarrak eta ez dago besterik egon leitekenaren __17__. Peio Aldazabal

filmotekako zuzendariaren hitzetan, "honeexek dira magiaren inguruan gure __18__ egon leitekezan irudi bakarrak". "__19__ horrek badauka logikea, __20__ kamerak 20ko hamarkadako erdikaldean hasi ziralako kaleetan __21__", azaldu dau, "kamera hareek gainera profesionalak ziran eta ez ziran __22__ filmazinoetan erabilten. Horrezaz gainera, filmazino guztiak __23__ egin behar ziran; etxe barruan filmetea ezinezkoa zan, __24__ ez egoalako".

Aita Laburu bere garairako gizon __25__ izan zan. Farmazian lizentziadua, Biologia, Antropologia eta Karakterologiako irakasle emeritua zan Erromako Unibersidade Gregorianoan. Egile __26__ eta hizlari __27__ be bazan eta hitzaldi asko emon zituan hainbat herrialdetan, Hegoamerikako unibersidadeetan, __28__. Berbaldi hareetako batzuen __29__ be diskoetan grabau eben eta Bilbon emon zituan hitzaldien argazkiak be badaukiez.

Filmotekako zuzendariak __30__ dauanez, "Aita Laburuk 16 milimetroko formatuan filmau zituan magiaren __31__ hainbat sekuentzia dira aitagarrienak". __32__, sendaketa-prozesuak *in situ* jasoten zituan: baserrietara joaten zan, eta petrikiloak egiten zituan praktikak filmetan zituan, eta, horrezaz gainera, __33__ be hartzen zituan. Irudi eta idatzi __34__ atzean askotan __35__ baino altxor handiagoa __36__ da, 30eko hamarkadako gizarte eta kulturearen gaineko datuak gordeten dituelako. Aitagarria da, adibidez, Aita Laburuk petrikilo bati kasu guztiak osatzen __37__ ziran ala ez itantzean harek __38__ eutsan haserrea. Belaunaldiz belaunaldi __39__ hartutako jakintzea zala jakinarazo eutsan petrikiloak.

Euskadiko Filmategiko zuzendariaren __40__, errito erlijiosoen eta metafisikoen arteko __41__ jasoten dira film honeetan. Batu diran dokumentuetan filmazinoen gaineko datu asko dagoz —ze baserritan egin zan eta ze __42__ osatzen ziran, __43__ —, eta informazino horrek sasoi haretako gizartearen eta sinismenen gaineko __44__ ugari gordeten ditu bere barruan.

Zintek, orain, zaharberritze-tratamentu __45__ behar dabe, hainbat urtez __46__ desegokietan gordeta egon ostean __47__ dagozalako hareetako asko. __48__, filmazinoen %90 berreskuratu leitekela pentsetan dabe filmotekako __49__. Dokumentu idatziakaz, __50__, ez dago aparteko arazorik, gehienak ondo gordeta egon dira eta.

Ainara Iraeta
El País, 2004-11-14
Egokitua

1.1. AUKEREN ORRIA

- | | | | |
|---|--|---|---|
| 1. a) eutsen
b) eutsezan
c) zituan
d) zituen | 2. a) mende
b) esku
c) zain
d) ardura | 3. a) oinazeak
b) zauriak
c) miaketak
d) sendabedarrak | 4. a) haginkadak
b) ostikoak
c) begiradak
d) estuasunak |
| 5. a) hamaika
b) bost
c) franko
d) holango | 6. a) eutsazan
b) jakozan
c) egokozan
d) zirudian | 7. a) itxaropenei
b) hartu-emonei
c) zainketei
d) ezagupenei | 8. a) bako
b) buruzko
c) egiteko
d) bitarteko |
| 9. a) harrera
b) eskari
c) arreta
d) sarrera | 10. a) joera
b) itxura
c) ikuspegi
d) itxaropen | 11. a) emoteko
b) emoten
c) emoteagaitik
d) emonez | 12. a) igaro
b) iraun
c) gainditu
d) autortu |
| 13. a) ilunak
b) ustebakoak
c) duda-mudakoak
d) garbiak | 14. a) arren
b) ustean
c) zalantzan
d) unean | 15. a) antza
b) ezin
c) egin
d) ete | 16. a) ezabatu
b) oldartu
c) orraztu
d) jorratu |
| 17. a) atxakiarik
b) errasturik
c) hastapenik
d) bazterrik | 18. a) eretxian
b) kabuz
c) lez
d) ahaleaginean | 19. a) Baieztapen
b) Aztikeria
c) Antolamentu
d) Lotura | 20. a) hurrengo
b) azkeneko
c) lehenengo
d) behin-behineko |
| 21. a) ikusi
b) ikusten
c) ikusiz
d) ikustera | 22. a) horretarako
b) holantxe
c) horren
d) holango | 23. a) ezkutuan
b) sotoetan
c) kanpokaldean
d) badaezpada | 24. a) argirik
b) kemenik
c) sortzerik
d) zentzunik |

25. a) aurreratua
b) arlotea
c) iaioa
d) goiztiarra
26. a) antzua
b) emokorra
c) kaskarra
d) sendoa
27. a) aparta
b) barritsua
c) kantsagarria
d) luzaezina
28. a) bertatik bertara
b) nonon
c) batez be
d) hurrenez hurren
29. a) zaratea
b) garrasia
c) oihua
d) soinua
30. a) gainditzen
b) suspertzen
c) garatzen
d) nabarmentzen
31. a) bestaldeko
b) inguruko
c) alboko
d) zalantzazko
32. a) Dana dala
b) Beharbada
c) Orokorrean
d) Izan be
33. a) oharrak
b) laginak
c) argazkiak
d) gutunak
34. a) horreek guztien
b) horreen guztiek
c) horreen guztien
d) hori guztien
35. a) ahal
b) uste
c) behar
d) gura
36. a) gaineratzen
b) ezkutetan
c) galtzen
d) sailkatzen
37. a) ei
b) ohi
c) egiten
d) ete
38. a) erakutsi
b) bota
c) larritu
d) hurreratu
39. a) bizikidetzan
b) osasungintzan
c) ordezkotzan
d) oinordetzan
40. a) esanetara
b) aginduz
c) eretxiz
d) gogoan
41. a) erakundeak
b) nahasketak
c) bilerak
d) batzarrak
42. a) auzi
b) handitu
c) jarduera
d) gatx
43. a) besteak beste
b) behintzat
c) apurka-apurka
d) itxura baten
44. a) ustelkeria
b) gizatasun
c) bilakaera
d) jakingarri
45. a) aldakorra
b) arrunta
c) sakona
d) baliagarria
46. a) euskarri
b) baldintza
c) ardura
d) jarrera
47. a) orekatuta
b) azpimarratuta
c) hondatuta
d) ahaztuta
48. a) Hala eta guztiz be
b) Esan barik doa
c) Laburbilduaz
d) Egia esan
49. a) gainbegiraleek
b) idazkariek
c) antolatzaileek
d) arduradunek
50. a) era berean
b) gehienez be
c) ostera
d) bakarrik

2. IDAZMENA

Egitekoa: ESKUTITZA

Oharrak:

- Gitxienez 245 berba idatzi behar dozuz.
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

GAIA: Antza danez, zuen auzoko plazea guztiz egokia da era guztietako emonaldiak bertan antolatzeko. Musikea dala, sagardaoaren eguna dala, ez dago herri guztian haren modukorik; ez behintzat Udalarentzat, ez eta herriko edozein alkarterentzat be.

Auzo-alkarteko burua zarenez, idatzi eiozu Udaleko kulturako zinegotziari, zuen ezinegonaren barri emoteko. Adierazo eiozu plazearen gehiegizko erabilera horrek zelango kalteak eta eragozpenak sortzen deusuezan, eta egiozu proposamenen bat.

Oharra: Orri hau eta honen atzeko aldea zirriborroa egiteko erabili zeinkez. Zirriborroan dagoana ez da kontuan hartuko.

ZIRRIBORROA

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60



1.2. ZUZENKETA-ORRIA – A eredua

Irakurgai: "MAGIAREN ETA OHITUREN IRUDIAK"

Ariketa-mota: CLOZE-TESTA

Baremoa: ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

A eredua

1.	C	2.	B	3.	B	4.	A
5.	A	6.	C	7.	D	8.	B
9.	C	10.	C	11.	D	12.	B

13.	D	14.	A	15.	C	16.	D
17.	B	18.	A	19.	A	20.	C
21.	B	22.	D	23.	C	24.	A

25.	A	26.	B	27.	A	28.	C
29.	D	30.	D	31.	B	32.	D
33.	A	34.	C	35.	B	36.	B

37.	D	38.	A	39.	D	40.	C
41.	B	42.	D	43.	A	44.	D
45.	C	46.	B	47.	C	48.	A
49.	D	50.	C				